



GOBERNU BATZARRA

2023.04.04

Alkatea:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:
Begoña Tolosa Mendia
Xarles Iturbe Pasaban
Xabier Balerdi Tolosa
Patxi Amantegi Zubiria
Jose M. Villanueva Telleria

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzaile akzidentala:
Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko apirilaren lauan, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko:

1. Akta hau onartzea: 2023ko martxoaren 21ekoa.
2. ELAk aurkeztutako berraztertze errekurtsoa ebaztea, 2023ko egutegiak eta barne funtzionamendurako instrukzioa onartzen duena.
3. 2022ko Tolosako asfaltatze kanpainaren obra kontratua adjudikatzea.
4. Dekretu hauen berri ematea:

2023/674 Dekretua: 2023/3 faktura zerrenda.

2023/675 Dekretua: 2023/4 faktura zerrenda.

2023/736 Dekretua: 2023/5 faktura zerrenda.

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2023KO MARTXOAREN 21EKOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. ELAK AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA EBAZTEA, 2023KO EGUTEGIAK ETA BARNE FUNTZIONAMENDURAKO INSTRUKZIOA ONARTZEN DUENA.

AURREKARIAK

Esther Uribecheverria Gonzalezek 2023ko martxoaren 15ean berraztertze-errekurtsoa aurkeztu du Tokiko Gobernu Batzarrak otsailaren 14an hartutako erabakiaren aurka.



Erabaki horren bidez, 2023ko urteko egutegia eta Udalaren barne funtzionamendurako instrukzioa onartu ziren.

Errekurtsoan bertan eskatzen du: egutegiaren onarpena adostua izan behar duela, lanaldi malguaren arauketa ez aplikatzea, eta opor eta lizentzia zein hirurtekoen inguruko araudia bertan behera uztea. Azkenik, negoziazio falta ere egon dela adierazi du.

Behin helegitea aztertu ondoren, hauxe da egiten den

PROPOSAMENA

LEHENA.- Udal egutegiaren negoziazio kolektikboa

Negoizazio kolektiboa honako printzipio nagusietan oinarritzen da:

1.- Negoziatzeko beharra

Administrazio publikoek hainbat gai ordezkari sindikalekin negoziatu behar dituzte, besteen artean, hauexek:

“Artículo 37. Materias objeto de negociación.

1. Serán objeto de negociación, en su ámbito respectivo y en relación con las competencias de cada Administración Pública y con el alcance que legalmente proceda en cada caso, las materias siguientes:

.../...

*m) Las referidas a **calendario laboral, horarios, jornadas, vacaciones, permisos, movilidad funcional y geográfica, así como los criterios generales sobre la planificación estratégica de los recursos humanos, en aquellos aspectos que afecten a condiciones de trabajo de los empleados públicos.** “*

2.- Fede onez negoziatzea

Enplegatu Publikoaren oinarritzko Estatutuak honako adierazten du:

“Artículo 34. Mesas de Negociación.

.../...



7. Ambas partes estarán obligadas a negociar bajo el principio de la buena fe y proporcionarse mutuamente la información que precisen relativa a la negociación”

3.- Bata besteari informazioa ematea

Alde batek besteari informazioa ematearen inguruan, udal gobernuak egindako proposamenak eta alderdi sindikalak egindakoak aztertuko dira, bi aldeen arteko informazioa elkar trukaketa egon zen zehaztu ahal izateko.

4.- Fede onez negoziatzeko obligazioa

Legeak fede onez negoziatzeko obligazioari dagokionean, jurisprudentziak adierazi du ez dela nahikoa negoziatzeko bilerak egitea baizik eta fede on hori alde bakoitzak bere proposamenetan malgutasuna eta negoziatio borondatea erakutsi beharko da eta akordio batera iristeko borondatea ere egiaztatu beharko da.

BIGARRENA.- Egutegia onartzeko aldean adostasun beharra.

Udal hitzamenak egutegia onartzeko garaian, hauxe xedatzen du:

“17. artikulua.- Lan-egutegia

1. Lanorduen banaketa orduen arabera zehaztuko dituen lan-egutegia dagokion Erakundearen prestatuko da, langileen ordezkariekin alde aurretiko akordioa lotu eta gero. Zerbitzuaren behar bereziak ziurtatuta geratu beharko dira, Kapitulu honen hurrengo artikuluetan zehaztuko diren irizpideen arabera.”

Dena den, 17. artikulua hau udal hitzarmenaren 11 artikuluekin erlazioan jarri behar da, alegia:

“11. artikulua.- Lanaren antolaketa

Lanaren antolaketa Erakundearen eskumena da, eta bere zuzendaritza-organoaren bitartez egingo da. Horrek ez du esan nahi **Erakunde Sindikalekin** eduki beharreko **kontsultak eta negoziazioa** mantenduko ez direnik, indarrean dagoen araudiak eta Hitzarmen honek jasotzen duten moduan.”

Zentzu honetan, 17 artikulua ezin da isolatuta interpretatu, izan ere modu literal batean interpretatzeak esanahiko luke ordezkari sindikalek akordio ezak egutegia onartzeko blokeoa iraunkorra finkatzeko ahalmena izango luketela eta honen ondorioz, urteko egutegiak ezingo lirarteke onartu, administrazioaren ohiko funtzionamendua modu larrian oztopatuaz. Horregatik, bi kontzeptu desberdinu behar dira:



- Bata, egutegiak ordezkari sindikalekin negoziatu behar dira eta hau hórrela egin da udal gobernu eta ordezkari sindikalek egindako bileretan (aurrerago zehaztuko dira datak eta edukiak).
- Bestea, egindako negoziazioen ondorioz akordioetara iristen ez bada, udaleko organu eskudunak egutegiak onartu behar ditu, urteko lan antolaketa bermatzeko helburuarekin eta hori egin du Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko otsailaren 14an.

Honen oinarria urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegilean dago, hau da, legeak ezarritako hainbat eduki, horien artean enplegatu publikoen egutegiak eta lan baldintzak, alde instituzionalaren eta alde sindikalaren artean negoziatu behar dira baina honek ez du esanahi akordioa derrigorrez egon behar duenik baizik eta bileretan proposatu diren gaien negoziazio bat egon behar du.

HIRUGARRENA.- Oporrak hartzeko epearen inguruan

Lehenik eta behin adierazi behar da puntu hau ez dela negoziazio mahaian planteatu, hau da, gai honen inguruko eskaerarik ez da egon. Hori horrela izanda, negoziazio kolektiboaren printzipio nagusi bezala, ezin dira errekurritu Negoziazio Mahaira eraman ez diren gaiak, kasu honetan gertatu den bezala.

Dena den, erabaki honen zergatia udalak duen oporrei buruzko barne instrukzioa arrazoitua dago. Tolosako udaleko langile gehinek Aste Santuan eta eguberrietan lan txanda sistema berezia dute, hau da, bai aste santutan baita eguberrietan ere astebete jai eta beste astea lan egiten da txandaka, honela praktikan udalean bi astez plantillaren erdia lanean jarduten du.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko otsailaren 14an onartu berri duen 2023 urterako egutegi eta barne funtzionamendurako zerbitzu instrukzioan hauxe xedatzen du oporren inguruan:

“6.- Oporrak, norbere gaietarako lizentzia egunak eta hirurtekoak.

6.1.- Oporrak: 24 lanegun izango dira eta urte guztian zehar egiteko aukera izango da abenduaren 10eko data mugarekin, beti ere zerbitzu beharren baitan eta honako irizpideak kontuan hartuaz:

.../...”



Hona hemen 2023ko abenduko lan egutegia:

ABENDUA

A	A	A	O	O	L	I		
		→		←	1	2	3	
4	5	→	6	7	←	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17		
←	18	19	20	21	22	23	24	
25	26	27	28	29	30	31		

Erabaki honen oinarria erakundearen antolaketa irizpideetan oinarritzen da; izan ere, egutegian ikusten den bezala, abenduko hilabeteak lau asteetatik ia bi astetan udaleko lan jarduna murriztu egiten da; 2023 urtean esate baterako, aste batean abenduaren 4tik 10era bakarrik bi lanegun daude eta abenduko azken astean, abenduaren 26tik 29ra, jai txanda errekupegarriak daude.

Honek esanahi du udaleko funtzionamendua asko murrizten dela bi aste horietan, are gehiago abenduaren 11tik 15etik edo abenduaren 18tik 22ra oporrak hartzeko aukera baimentzen bada eta lizentzia egun, hirurteko eta eguberrietako jai egunekin jarraian hartzea baimentzen bada.

Egutegiaren egoera hau ia urtero errepikatzen da eta abenduko hilabeteen zehar lanen antolaketa, koordinazioa eta exekuzioa aurrera eramatea oso zaila izango litzateke ez badira sail bakoitzean gutxieneko zerbitzu batzuk bermatzen.

Oporrak urte naturala amaitu arte gozatzeko eskubideak izateak esanahiko luke udalaren funtzionamendua abenduko hilabeteen moteldu egingo litzatekeela eta horregatik, udalak antolaketa neurriak arautu ditu oporren inguruan eta horiek negoziatu ditu ordezkari sindikalekin.

Bukatzeko, adierazi behar da oporrak abenduaren 10 arte egiteko epe muga, 2.005 urtetik aurrera aplikatu izan dela, urtero udalak modu honetan onartu izan duela eta inoiz ez dela zalantzan jarri, ezta 2023 urtean egon den udal gobernu eta ordezkari sindikalen arteko negoziazio bileretan ere, alegia gai paketsua eta onartua izan da Tolosako udalean.



LAUGARRENA.- Norbere gaietarako lizentzia egunak eta hirurtekoak hartzeko epearen inguruan.

Kasu honetan ere, adierazi behar da puntu hau ez dela negoziazio mahaian planteatu, hau da, gai honen inguruko eskaerarik ez da egon. Hori horrela izanda, negoziazio kolektiboaren printzipio nagusi bezala, ezin dira errekurritu Negoziazio Mahaira eraman ez diren gaiak, kasu honetan gertatu den bezala.

Dena den, erabaki honen zergatia udalak duen jai egunen egutegien baldintzetan arazoitua dago. Tolosako udaleko langile geheinek Aste Santuan eta eguberrietan lan txanda sistema berezia dute, hau da, bai aste santutan baita eguberrietan ere astebete jai eta beste astea lan egiten da txandaka, honela praktikan udalean bi astez plantillaren erdia lanean jarduten du.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko otsailaren 14an, 2023 urterako egutegi eta barne funtzionamendurako zerbitzu instrukzioan hauxe xedatzen du:

“6.3.- Aste Santua eta Eguberrietako asteak: Aste Santuko eta Eguberrietako aste errekuagarriak dagokienez, sail bakoitzak, bere barne antolakuntzaren barruan, Giza Baliabideetako sailean aurkeztu beharko du proposamena, data horiek iritsi baino 15 egun lehenago. Zerbitzuak une oro bermatua egon beharko du aste horietan.

Ezingo dira bi aste desberdinetako egun errekuagarriak jarraian disfrutatu, hau da, ezingo dira bi aste jarraian hartu. Halaber, ezingo dira Eguberrietako zein Aste Santuko egun horiek hirurteko edo lizentzia egunekin zein oporrekin elkartu, ez aurretik ezta ondoren ere. Bi kasu horietan, dagokion organo eskudunak aldaketak baimendu ahal izango ditu, salbuespenezko izaeraz eta zerbitzuaren beharren arabera.”

Hirugarren puntuan aipatu den ildo beretik, proposamen hau antolaketa eta ohiko funtzionamendu printzipioetan oinarritua dago, izan ere zerbitzua modu eraginkor eta jarraian eman ahal izateko, beharrezkoa da gutxieneko antolaketa neurri batzuk ezartzea eta kasu honetan, udalak, ordezkari sindikalekin hainbat negoziazio bilera egin ondoren, gai honen aurka ez da agertu, alegia ez du kontrako jarrerarik agertu birjarpen helegitea aurkeztu arte.

Gaur egun, 2023 urtean onartutako norbere gaietarako lizentzia egunak eta hirurtekoak hartzeko urteko azken eguna 2023ko abenduaren 22a da, hau da, udalak urteko egutegiaren azken lan eguntzat jotzen duen azken eguna.



Bestalde, lizentzia egun hauek eguberrietako eta Aste Santuko jai egun errekupegarriekin ez elkartzeko arrazoia udalaren ohiko lan funtzionamenduan legoke, izan ere bi epealdi horietan asteetan jadanik zerbitzua % 50ean murriztua egoten da eta egoera hau udalaren ez-ohiko funtzionamendua ez luzatzeko antolaketa neurri hau hartu da.

BOSGARRENA.- Lanaldi malguaren eta ez-ohiko orduen kontzeptua eta aplikagarritasunaren inguruan.

1) Lanpostuen balorazio berria onartu aurreko erregimena.

Tolosako udalak, goizeko ohiko lan saiotik kanpo lan egiten zuten udal langileen erregimena (brigadako lan taldea salbu) honako hauxe zen:

“6.4.- Ohiko ordutegitik kanpo egindako orduak —aparteko ordu gisa kontsideratzen ez direnak (lan pilaketagatik, ohiko ordutegitik kanpoko bilerak...)— ordu bakoitzeko bi orduko konpentsazioa izango dute, beti ere saileko arduradunaren edo/eta zinegotzi delegatuaren eskariz eta haren oniritziarekin. Ordu horien konpentsazioa aplikatu ahal izateko, justifikazio-txosten bat egin beharko du zerbitzuburuak eta saileko zinegotziaren oniritzia beharko du (II. eranskinean doa eredu); behin Giza Baliabideetako Sailak aztertu ondoren, dagokion izaera emango die ordu horiei, beti ere hitzarmenak markatutako 1.592 orduen barruan.”

Hau osatzen zen Udal hitzarmenak 39. artikuluan aurreikusitako ohiko lanalditik kanpoko orduen erregulazioarekin, hain zuzen ere honako hau xedatzen da:

“1) Aparteko ordutzat hartzen da ezinbestean lan egiten den denbora guztia (ordua eta ordu-zatia), alegia, zerbitzuan ezustekoak edo etenak gertatu direlako (langileren bat bertaratu ez delako, esaterako...) edo bestelako ezinbesteko eta azken orduko ezusteko gorabehera batzuk tarteko egindako lana, aurretik nahiko denboraz antolatu ezin izan denean edo zeregin bat premiaz bete behar denean, beti ere araudi honetan xedaturikoa kontuan hartuz.

2) Ohiko lanalditik kanpo egindako orduak ez dira ordainduko, baizik eta denboran konpentsatuko dira, indarrean dagoen lan hitzarmenaren 39.9 artikuluan xedatutakoaren arabera.”



Honela, nahasketa bat zegoen ohiko orduen eta ohiko lanalditik kanpo lan egiten ziren orduen artean; lehen kasuan, ezinbesteko edo ez-ustekoak gertatzen diren kasuentzat aplikakagarri den heinean (istripuak, aurreikusi ez daitezkeen jarduerak etab...), bigarren kasuan, urtean zehar planifikatu daitezkeen eta errepikakorrek diren jarduera eta ekintzak barnebiltzen ditu.

Hori horrela, lanaldiz kanpo eta ez-ohiko orduen arteko nahasketa eta interpretazio oker bat egiten zela kontuan hartuz, udalak, lanpostuen balorazio berria aintzat hartuz, ohiko lan saiotik kanpo eta ez-ohiko orduen kontsiderazioa ez zuten orduen erregimen berria finkatu zuen, 2022ko abenduaren 15ean Udalbatzak behin-betiko izaeraz onartu zuena.

2) Gaur egungo erregimen berria: lan saio malguak, eta lanaldi faktorearen erregulazioa ("J" faktorea)

2023 urterako egutegiak eta barne funtzionamendurako zerbitzu instrukzioak lanaldi malguaren inguruko aldaketak sartu ditu, gaur egun indarrean dagoen lanpostuen balorazio berriak onartutako xedapenetara egokitzeko.

Honela, Tolosako udalak 2022ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, lanpostuen katalogoa, balorazioa, sailen organigrama eta Lanpostu zerrenda behin-betiko izaeraz onartu zuen. Honela, lanaldiari dagokionean honakoa onartu zen:

" 6.- Balorazio eskuliburuaren "lanaldien ezaugarrien" faktorea aplikatzea honako lanpostu hauetan, erabaki honen aurrekarietan adierazitako ondorioekin:

- Idazkaria
- Kontuhartzailea
- Hirigintza, obra, zerbitzuak, mugikortasuna eta trantsizio energetikoko arduraduna
- Giza Baliabideetako arduraduna
- Udaltzaingoko ofiziala
- Udaltzaingoko ofizial ordea
- Kultura, jaiak eta festetako arduraduna
- Garapen ekonomiko, enplegu, merkataritza eta azoketako arduraduna
- Kiroletako arduraduna
- Komunitate eta gobernantzako arduraduna
- Musika Eskolako zuzendaria
- Euskaltegiko zuzendaria
- Kultura teknikaria
- Berdintasun teknikaria (A)
- Gazteri teknikaria
- Brigadako arduraduna



- Udateko administraria
- Musika Bandako zuzendaria
- Txistulari Bandako zuzendaria
- Merkataritza, azokak eta turismoko administraria
- Musika Eskolako idazkari akademikoa
- Euskaltegiko idazkari akademikoa
- Brigadako lantaldea
- Euskaltegiko administraria
- Txistularia
- Kirol instalazioetako harreragilea
- Kirol instalazioetako arduraduna
- Kiroldegiko begirale
- Eskoletako atezainak

Hortaz, arratsaldetan edo asteburuetan lan egindako orduak (ohiko lansaiotik at) ordu arrunt gisa hartuko dira eta ez dira, orain arte bezala, aparteko ordu gisa zenbatuko; izan ere, baloratutako faktore honekin jadanik lanpostuan faktore hori baloratua geratuko da. Horrek ekarriko du, eraginpeko lanpostuen kasuan, egutegia egokitzeko beharra, balorazioa indarrean sartzen den egunetik aurrera. Halaber, egutegi bat osatu beharko da urtean zehar aurreikus daitezkeen bilera zein ekitaldiekin, beti ere 1592 orduen barruan.”

Hortaz, erabaki honetatik bi ondorio nagusi atera daitezke:

- Batetik, lanaldi faktorea baloratua duten lanpostuek, ohiko lan saiotik kanpo egindako lan orduak (arratsaldez edo asteburuetan) ordu arrunt gisa hartuko dira.
- Bestetik, lanpostu hauetan urtero egutegia egokitu eta planifikatzeko beharra egongo da.

Udalbatzak hartutako erabaki honen ondorioz, lanpostuen balorazioa onartu eta lanaldi erregimenak finkatzearena, 2023 urterako egutegiaren eta barne funtzionamendurako zerbitzu instrukzioan, honako xedapenak onartu ziren:

“4.- Lan saio motak: lanaldi luzatua eta ordutegi bereziak.

Udalak, bere eskuduntzen barruan, eta onartu berri den lanpostuen balorazioaren ondorioz, lanaldi luzatua behar duten zerbitzu eta lanpostuak finkatu ditu; hauetan lanaldia eta ordutegiak zerbitzuak ezarritako beharretara egokituko dira. Honela, bost lan saio mota finkatzen dira:

- *Ohiko lan saioa: goizez egiten dena.*
- *Lan saio malgua: lanaldi luzatua barnebiltzen duena; urtean 1.685 ordu.*
- *Lan saio malgua: zerbitzuen beharretara egokitzen dena, urtean 1592 ordu.*
- *Lan saio zatikatua: goizez eta arratsaldez*
- *Txandakako lanaldia: goizez, arratsaldez eta gauez, edota goizez eta arratsaldeko txandatan banatzen dena.”*



.../...

6.4.- Lansaio malgua izateagatik osagarri berezirik ez duten lanpostuen kasuan, ohiko ordutegitik kanpo egindako orduak —aparteko orduak izan ala ez — ordu bakoitzeko bi ordutako konpentsazioa izango dute, beti ere saileko arduradunaren edo/eta zinegotzi delegatuaren eskariz eta haren oniritziarekin. Ordu horien konpentsazioa aplikatu ahal izateko, justifikazio-txosten bat egin beharko du zerbitzuburuak eta saileko zinegotziaren oniritzia beharko du (II. eranskinean doa eredu); behin Giza Baliabideetako Sailak aztertu ondoren, dagokion izaera emango die ordu horiei:

Atal hau ez da aplikagarria izango lan saioetatik berriazko osagarrian lanaldi faktorea baloratua duten lanpostuetan; azken kasu hauetan konpentsazioa ordu bakoitzeko ordu batekoa izango da.

.../...

9.- Lan saio bereziak.

Lanpostuen balorazioaren ondorioz, bi lanaldi mota aldatu eta eguneratu egin dira eta modu honetan geratu dira:

a) Lan saio malgua eta lanaldi luzatua barnebiltzen duena; urtean 1.685 ordu. Kasu honetan, lanaldi faktorea eta dedikazio faktoreak kontuan hartu dira. Kasu hauetan, udal hitzarmenaren prestutasuna aplikagarri izango da eta osagarria, balorazioaren baitan, % 5.8an finkatu da.

b) Lan saio malgua: zerbitzuen beharretara egokitzen dena, urtean 1592 ordu. Kasu honetan, eguneko ohiko lanaldia izango badu ere, zerbitzuaren beharrak ezarritako jardueretara baldintzatua egongo da beren ordutegia, beti ere lanpostuen ohiko zereginetan goizeko orduetatik kanpoko jarduerak burutzen direla kontuan hartuta. Honela, egutegi mota hau duten lanpostuak honako irizpideak jarraitu beharko dituzte:

- Egutegiarekin batera urteroko planifikazio bat aurkeztu beharko dute, aurreikusiaz ze ordu kopuru sartuko lituzketen goizeko ordutegitik kanpo. Proposamen horren arabera, Giza Baliabide sailak egutegia aztertu eta oniritzia eman edo aldatetak proposatuko ditu.

- Giza Baliabideetako sailean dagoen informazioa kontuan hartuta, planifikazioarekin lotutako malgutasunezko ordu-kopurua gehienez honakoa izango da:

1.- Bulegoetako langileak: 40 ordu.

2.- Kultur teknikaria: 80 ordu.

3.- Brigadako lantaldea: 80 ordu.

4.- Udaltzainak: berezko egutegian adierazten dena.

Dena den, programatu edo planifikatu gabeko lan saioetara deitu ahal izango da, beti ere salbuespenezko izaeraz eta hiru eguneko epeaz abisatuz gero, beti ere programatutako gehienezko ordu kopurua agortu ez bada. Bestelako kasuan, ez ohiko orduen izaera emango zaie ordu hauei.



Kasu guztietan irizpide hauek berraztertu eta eguneratuko dira, Giza Baliabideetako sailean jasotako datuen arabera.

- Guzti honen ondorioz, goizeko ohiko ordutegia ez da bulegoetako ohiko ordutegi berbera izango, hau da, lan saio malguaren ondorioz sartutako orduak, goizeko ordutegia murriztuko dute, guztira 1.592 ordu osatu arte. Halaber, malgutasunezko lan saioa duten lanpostuen kasuan, aukera egongo da arratsaldetan edo asteburuetan egindako orduak metatzeko eta errekupeatzeko, orduz-ordu. Kasu honetan, orduen kitapena hiru hilabetetik behin egingo da.”

Honela, lan saio malguaren duten udal langileen orduen konpentsazioa eta lan saiotik kanpo etortzeagatik lan saio malgua ez duten udal langileen orduen konpentsazioa ezberdindu behar dira:

1.- Lanaldi malgua duten langileen kasuan: lanpostuen balorazioaren ondorioz, berariazko osagarri kontzeptuan lanaldi faktorea baloratua duten lanpostuak dira eta bertan ezarritako araubidea aplikatuko zaie, alegia: goizeko ordutegitik kanpo zerbitzu beharren arabera eta onartutako planifikazio baten arabera egin beharreko lanaldia, ordu arruntaren izaera izango du beti ere 1592 orduen barnean eta udal langile bakoitzari ezarritako ordu kopuru mugarekin.

Dena den, lanpostuen balorazioaren ondorioz lanaldi faktorea baloratua duten lanpostuek, aparteko orduengatik konpentsazioa jaso ahal izango dute, honako kasu honetan:

- Lanaldi faktorearen ondorioz dagozkion ohiko lanalditik kanpoko orduak (40 edo 80 ordu, kasuan kasu) eginda badituzte, hortik aurrera ohiko lan saiotik kanpo egindako orduak, aparteko orduen kontsiderazioa izango du, beti ere urteko 1.592 orduak gainditzen badituzte.

2.- Lan saio arrunta duten langileen kasuan: goizeko ordutegitik kanpo zerbitzu beharren arabera egin beharreko lanaldia, ez-ohiko orduen izaera izango dute, beti ere udal hitzarmenak ezarritakoaren arabera;

“Aparteko ordutzat hartzen da **ezinbestean** lan egiten den denbora guztia (ordua eta ordu-zatia), alegia, **zerbitzuan ezustekoak edo etenak** gertatu direlako (langileren bat bertaratu ez delako, esaterako...) edo **bestelako ezinbesteko eta azken orduko ezusteko gorabehera** batzuk tarteko egindako lana, **aurretik nahiko denboraz antolatu ezin izan denean edo zeregin bat premiaz bete behar denean**, beti ere araudi honetan xedaturikoa kontuan hartuz, eta, betiere, ohiko lanaldia gainditzen bada.”

Hau da, aurreikusi ezin daitezkeen eta ezinbestekotzat jotzen diren orduak soilik izango dute ez-ohiko orduen kontsiderazioa, beti ere ordu horiek justifikatuak badaude. Alegia, urtean zehar errepikakorrak diren ekintza eta planifikatu daitezkeen ekintza urteko egutegian txertatu beharko dira.



Zentzu honetan, adierazi behar da lanaldiaren ezaugarri faktorearen graduazioa balorazio prozesuan zehar egindako hausnarketa baten emaitza izan da. Honela, balorazio eskuliburuaren arabera, lanaldi faktorea aplikatu zaio, udalak atzeraeraginkortasuna aplikatzea erabaki zuen momentutik aurrera lanpostu horiei ohiko lan saiotik kanpo zituzten orduen araberrako datuen baitan. Horregatik, faktoreen ponderazio egiterako garaian, batz-beste ohiko lanalditik kanpo egindako saioen kopurua hartu dela, lanpostuen egoera pertsonala kontuan hartu gabe eta lanpostuak eskatuko lukeen lan saio malgu "estandarra" kontuan hartuaz.

Amaitzeko, lanaldi faktorea arautu eta baloratzeko zergatia, lan antolaketa elementu hauetan oinarritzen da;

1.- Udaleko ordainsariak legeztatze beharra

Legeak, lanpostuen balorazioa onartu zen unean, honako hiru xedapenetan oinarritu zuen enplegatu publikoen ordainsarien erregimena: uztailaren 6ko 6/1989 Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak; uztailaren 30eko 207/1990 Dekretuak, euskal administrazio publikoetako funtzionarioen ordainsariei buruzkoak; eta apirilaren 25eko 861/1986 Errege dekretuak, toki administrazio funtzionarioen ordainsarien erregimenei buruzkoak.

Orain, zentzu berean, abenduaren 1eko 11/2022 Legeak, Euskal Enplegu Publikoa arautzen duena, jarraipen ematen dio 1989ko legeari eta apirilaren 25eko 861/1986 Errege dekretuak, toki administrazio funtzionarioen ordainsarien erregimenei buruzko xedapenarekin batera, ordainsariak eduki behar duten edukia arautzen du.

Zentzu honetan, Euskadiko Kontu epaitegiak, Tolosako udaleko 2020 urteko fiskalizazioa egiterako garaian, adierazi zuen legez kanpo jasotako ordainsariak ezin zirela gauzatu eta legeak ezarritako kontzeptuetara egokitu behar zirela.

Ildo beretik, legeak ez du baimentzen ohiko lan saiotik kanpo baina 1592 lan orduen barnean egindako lanorduei ez-ohiko orduen kontsiderazioa ematea; alegia, legez kanpo daude 1.592 orduen barnean egin behar diren orduei ez-ohiko izaera ematea.

2.- Egutegiak planifikatu eta departamentuen lan banaketa antolatzeko beharra

Lehen puntuan aipaturiko lanpostuak lanaldi malgua izateak ez du suposatzen erabateko malgutasuna baizik eta urtean zehar aurreikusi daitezkeen ekintzak zehaztu eta planifikatu ondoren, ekintza bakoitzak suposatu ditzakeen ordu kopurua kontuan hartu eta hauek lanpostu bakoitzaren egutegian aurreikusiko dira, guztia 1.592 orduen barruan.

Dena den, urtean zehar planifikazioaren barruan aurreikusi ez den ekintzaren bat edo batzuk lanaldiz kanpo egingo balira, hauek "lanaldi malguaren" kontzeptuaren barnean sartuko lirateke, hau da, planifikazioz kanpo ordu horiek ere 1592 orduen barruan



sartuko dira, beti ere sortutako ekintza berri horiek proportzionaltasun baten barnean dauden bitartean eta egutegian ezarritako gehienezko ordu kopurua (40 ordu edo 80 ordu, kasuan kasu) gainditzen ez dituzten bitartean.

2022 urte arte egutegiarekin batera onartzen zen zerbitzu instrukzioan, lanaldiz kanpo egindako orduak modu honetan zenbatzen ziren;

*“Ohiko ordutegitik kanpo egindako orduak —aparteko ordu gisa kontsideratzen ez direnak (lan pilaketagatik, ohiko ordutegitik kanpoko bilerak...)— ordu bakoitzeko **bi ordutako** konpentsazioa izango dute, beti ere saileko arduradunaren edo/eta zinegotzi delegatuaren eskariz eta haren oniritziarekin. Ordu horien konpentsazioa aplikatu ahal izateko, justifikazio-txosten bat egin beharko du zerbitzuburuak eta saileko zinegotziaren oniritzia beharko du (II. eranskinean doa eredu); behin Giza Baliabideetako Sailak aztertu ondoren, dagokion izaera emango die ordu horiei, beti ere hitzarmenak markatutako 1.592 orduen barruan.”*

Orain ordea, lanpostuen balorazioaren onarpenaren ondorioz, lanaldi faktorea baloratua duten lanpostuetan, ordu bakoitzarengatik, ordu bat zenbatuko da, beti ere 1.592 orduen barnean eta ordu kopuru muga batekin, kasuan kasu (40 ordu eta 80 ordu). Hemendik kanpo egindako lan ordu ez-ohiko izaeraz izango dute eta udal hitzarmenak ezarritako konpentsazioa izango dute.

Aldaketa honen zergati nagusia bi arrazoietan oinarritu da:

Bata, lanaldiari buruzko irizpideak legera egokitzeko beharra, legean bertan eta balorazio eskuliburuan onartu diren faktoreen bidez definitu diren lanpostuen ezaugarriak finkatuaz eta ez-ohiko orduen kontzeptua legera egokituaz.

Bestea, lanaldiari dagozkion ezaugarriak aplikagarriak dira lanpostuen balorazio onartu zen unetik aurrera; horregatik, behin egutegien planifikazioa definituta, 2023ko egutegian eta zerbitzu instrukzioan txertatu dira lanpostu bakoitzak dituen ezaugarrien ondorioz, bertatik eratortzen diren lana saio motak eta hauek zenbatzeko irizpideak.

SEIGARRENA.- Negoziazioaren ondorioz eman diren prozesua eta emaitzak

Helegiteak negoziazio eza eta motibazio falta argudiatzen ditu. Kasu honetan, negoziazio kolektiboak errespetatu behar dituen printzipioak, eta 2023 urteko egutegiak eta barne funtzionamendurako instrukzioa izan duen ibilbidea erreparatuko da. Honela, bi aldeen arteko negoziazioan zehar printzipio hauek bete diren aztertuko da:

1.- Bata besteari informazioa ematea

Lehenik eta behin, adierazi bi aldeen artean bost negoziazio bilerak egin direla: 2022ko abenduaren 13an, 2022ko abenduaren 16an, 2023ko urtarrilaren 10ean, 2023ko urtarrilaren 24an eta 2023ko otsailaren 8an.

Alde batek besteari informazioa ematearen inguruan, honako ildoak azpimarra daitezke:



- Udal gobernuak, 2023 urtean egutegiak eta barne funtzionamendurako zerbitzu instrukzioa onartzeko dokumentua lau aldiz helarazi zaie ordezkari sindikalei negoziazio bilera egin aurretik, hau da, 2022ko abenduaren 12an, 2022ko abenduaren 19an, 2022ko abenduaren 30ean eta 2023ko otsailaren 3an.

- Honetaz gain, udal gobernuak idatzizko egutegiaren negoziatorako proposamenak aurkeztu zituen bitartean, ordezkari sindikalek ez dute egutegiari buruzko idatzizko proposamenik aurkeztu, soilik udaltzaingoaren eta txistularien gaiei dagokionean.

2.- Fede onez negoziatzeko obligazioa

Legeak fede onez negoziatzeko obligazioari dagokionean, jurisprudentziak adierazi du ez dela nahikoa negoziatorako bilerak egitea baizik eta fede on hori alde bakoitzak bere proposamenetan malgutasuna eta negoziazio borondatea erakutsi beharko da eta akordio batera iristeko borondatea ere egiaztatu beharko da.

Zentzu honetan, Negoziazio bileretan egin diren bost bileretan alde instituzionalaren aldetik bost proposamen ezberdin aurkeztu dira, hauexek:

1.- 2022ko abenduaren 13ko bileran aurkeztutako egutegi instrukzioa; bertan, 2022ko zerbitzu instrukzioarekiko hainbat aldaketa planteatzen ziren, Udateren ordutegi aldaketa esate baterako.

2.- 2022ko abenduaren 16ko bileran aurkeztutako egutegi instrukzioan lanpostuen balorazioaren ondorioz, lan saio ezberdinak finkatu eta arautu ziren. Baita ere Udateko ordutegian aldaketak egin ziren.

3.- 2023ko urtarrilaren 10eko bilerarako ere beste egutegi instrukzio proposamen bat bidali zen aldaketekin.

4.- 2023ko urtarrilaren 24an ere Udateko zerbitzuaren eta udaltzaingoaren egutegiari buruzko proposamenak landu eta negoziatu ziren.

5.- Azkenik, 2023ko otsailaren 8an, egutegiari buruzko beste instrukzio proposamen bat egiteaz gain, udal gobernuaren proposamen zehatza eta ordezkari sindikalek eskatutako lanaldien inguruko txostena ere helarazi zitzaion.



Alde sindikalaren aldetik aldiz, ez da idatzizko proposamenik jaso, helegitea aurkeztu den gaien inguruan, alegia, oporrak, norbere gaietarako hirurtekoak edota lan saio malguari buruzko arauketari buruz; gai hauen inguruan bere desadostasuna adierazi dute baina negoziatzeko beste proposamenik egin gabe.

3.- Akordiorik gabeko amaiera

2023ko otsailaren 8an egindako bileran, udal gobernuak negoziazio bilerak amaitutzat ematea erabaki zuen (bost negoziazio bilera deitu ondoren, 2022ko abenduaren 13an, 2022ko abenduaren 16an, 2023ko urtarrilaren 10ean, 2023ko urtarrilaren 24an eta 2023ko otsailaren 8an), zati batean akordiorik gabe eta udaltzaingoaren kasuan akordioa baldintzatua geratu zen solapearen eskaera onartzera. Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko otsailaren 14an udaltzaingoaren solapearen eskaera onartu egin zuen.

Konklusio gisa baieztatu daiteke udal gobernu eta ordezkari sindikalen artean egindako egutegiari buruzko negoziazio bileretan benetako negoziazioa egon dela eta ondoren zehazten diren gaiak negoziatu direla, zehazki hauexek:

- Lan saio malguari dagozkion ordutegiak
- Udateko zerbitzuaren ordutegia
- Udaltzaingoko egutegiaren testua
- Txistularien egutegia

Benetako negoziazio horren ondorioz, honako akordioetara iritsi da:

1) Udateko egutegiari dagokionean, honela uztaileko arratsaldeko lehen hamabostaldiko zerbitzua kendu da eta oporrak egiteko aukera zabaldu da, langileen eskaerei jarraituz.

“2.- UDATEko egutegia eta ordutegia.

- UDATEko jendaurreko ordutegia hau izango da: 07:15etik 14:15era astelehenean, asteartean, asteazkenean eta ostiralean, eta ostegunean, berriz, 07:15etik 19:00etara, abuztuan eta uztailean izan ezik non arratsaldeko zerbitzurik ez da emango.

- 2023 urtean, Inauterietan honako ordutegia egongo da Udateko zerbitzuan:

- Ostegun gizona: 07:15-11:15.
- Ostiral mehea: 08:00-12:00



➤ *astelenita, asteartita eta hauster eguna: jai*

- *Bestalde, 2023 urtean dauden zubietan ere gutxieneko zerbitzua 2 administrarietan finkatzen da.”*

.../...

“ Arautegi honetatik at geldituko dira UDATEko langileak, zeintzuk urtean zehar oporrak egiteko aukera izango duten, zerbitzua beti ere lau langileekin bermatua egon beharko duelarik (uztaileko eta abuztuko hilabetea salbu, non, orokorrean, bi langilek oporrak egin ahal izango dituzten eta abuztuko hirugarren astean hiru langilek hartu ahal izango duten).”

2) Udaltzaingoaren egutegian, honako eskaerak onartu dira:

- Txanden arteko solapeak: agente lehenak 15 minutu lehenago sartzen diren bitartean, txandakako agenteak 10 minutu lehenago sartzea onartzen da, beti ere solape hori eraginkorra bada, udaltzain buruzagitzak emandako jarraibideen arabera. Puntu hau berrikusgarria izango da urtean zehar ikusten den eboluzioaren baitan.

- Oporrei dagokionean, honako testua onartu da:

- *“ Abenduak 18tik, Urtarrilak 7arte (Abenduak 24, 31 eta Urtarrilak 5 kendurik, hauetan ezin izango da oporrak ez lizentziak hartu) gutxieneko zerbitzu bermatuta, oporrak, AP-ak edo orduak soberan hartu daitezke.*
- *Egun hauetarako gutxieneko zerbitzuak, hauek dira:*

- *-Buruzagitza: 1*
- *-administrariak: 1*
- *-Irratia: 1*
- *-Hiru txandako langileak: 3*
- *-Bi txandako langileak: 2”*

- Iñauteri, San Juan egunak eta azoka bereziak:

“Data hauek bermatzeko, Udaltzainburuzagitzak ezarriko ditu urte hasieran egongo diren errefortzuak urteko egutegiaren barruan.

3 txandako udaltzainek 12 orduko bi txandetan errefortzuak egingo dituzte (guztira 24 ordu gehienez).

6 taldeko udaltzainek 12 orduko txanda batean errefortzatuko dute gehienez.”



Egun hauetan jai duten udaltzain guztiek udaltzain buruaren esanetara egon beharko dute, zerbitzu beharren arabera lanera etorri beharko dutelarik. Egun hauetan lan egindako ordui, lanpostuen baloraziotik eratorritako konpentsazioak aplikatuko dira.”

- Ordezkapenak: honako testua proposatu da:

“Zirkunstantzia jakin batzuegatik, (bajak, bakanteak,...) bete gabe dauden lehen mailako agenteen lanpostuak beste agente batzuek beteko dituzte, ahalik eta azkarren.

Ofiziala eta ofizial ordeak beraien artean ordezkatu dira eta biak batera falta badira, iraupen motzeko epealdiak badira, Alkateak edo Antolakuntzako zinegotzi delegatuak erabakiko du ordezkapena noiztik hasiko den. Dena den, iraupen luzeko baja baten ondorioz edota plaza hutsik geratzen delako, ordezkapena derrigorrez egingo da. Azken kasu honetan, ordezkapen sistema bat adostuko da ordezkari sindikalekin.”

3) Txistularien egutegiaren inguruan, honako eskaerak onartu dira:

- Lan egutegia: eguraldi txarra egiten badu, emanaldiak hiru aterpetan jotzea ontzat ematen da baina igandeko lan saioa eta jotzeko denbora bete beharko da.

- Entseguak; uztailean eta irailean lehen egunetan entseguak ez egotea onartzen da, orain arte izan duten funtzionamendurekin jarraituaz.

- Protokolo orduak eta uztaile eta iraileko diana motzak (ordubetekoak direnak): hauen balioa gutxienez 1,30 ordu izatea eskatzen da. Protokolo orduak 1,30 orduko balioa izatea onartzen da baina uztaileko eta iraileko orduen balioa mahai gainean geratzen da, aztertu arte udalak udal txistulari andako langileekin hartutako akordioak aurkitu eta aztertu bitartean.

Aldiz, negoziazioan akordiorik lortu ez diren gaiak eta hortaz, ordezkari sindikalek bere desadostasuna azaldu duten honako edukiekin:

- Lan saio malguari dagozkion ordutegiak eta lan erregimena.
- Txistularien egutegia: lan ordu ez presentzialak egiteko irizpideen zehaztea.

Amaitzeko gogoratu, oporrak eta lizentzi edota hirurtekoen erregimenari buruzko atala ez dela negoziazio mahaian tratatu.

Aurreko guztia kontuan hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



ERABAKI DU

LEHENA.- Ez onartzea Esther Uribecheverria Gonzalezek 2023ko martxoaren 15ean aurkeztutako berraztertze-errekurtsoa.

BIGARRENA.- Ebazpen hau interesatuari jakinaraztea.

3. 2022KO TOLOSAKO ASFALTATZE KANPAINAREN OBRA KONTRATUA ADJUDIKATZEA.

I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren xedea	2022ko Tolosako asfaltatze kanpaina
Unitate sustatzailea	Hirigintza Saila
Espedientea	2022OASI0011

II.- AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udaleko Hirigintza Saileko teknikariak 2022ko abenduaren 22an egindako txostenean, aipatutako xedea duen obra-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion.

Bigarrena.- 2022ko abenduaren 27an, Tokiko Gobernu Batzarrek, besteak beste, 2022ko Tolosako asfaltatze kanpainaren obra-kontratuaren espedientea onartu zuen eta hasiera eman zion lizitazioari.

Hirugarrena.- Proposamenak aurkezteko epean, ASFALTIA, S.L. (B47607775), EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA.S.L (B31065212) eta UTE AMENABAR-ALVARGONZALEZ (U0004183) enpresek aurkeztu zituzten eskeintzak.

Laugarrena.- Behin izapidetze guztia legearen arabera egin eta gero, 2023ko martxoaren 31n, kontratazio-mahaiak hau proposatu zion kontratazio-organoari: ASFALTIA, S.L. (B47607775) enpresari adjudikatzea 2022ko Tolosako asfaltatze kanpainaren obra-kontratua, prezio honetan: nagusia 477.934,13 euro eta BEZa 100.366,17 euro; guztira, 578.300,30 euro.

III.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan; SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.



1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.
2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea —kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean—, aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (2.856.976 euro) baino gutxiago da; hortaz, alkate-lehendakaria da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna. Horiek horrela, alkate-lehendakariak 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.3 artikuluan xedatutakoan oinarrituz, 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetza Dekretuaren bitartez erabaki zuen 600.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten kontratuak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea. Horiek horrela, **Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da** kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.

Aipatu behar da, kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, eta hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioekin.

Aurreko guztia aintzat harturik, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA. Lizitazio-egintzaren baliozkotasuna deklaratzeko.



BIGARRENA.- ASFALTIA, S.L. (B47607775) enpresari adjudikatzea 2022ko Tolosako asfaltatze kanpainaren obra-kontratua, prezio honetan: nagusia 477.934,13 euro eta BEZa 100.366,17 euro; guztira, 578.300,30 euro.

HIRUGARRENA.- Enpresari eskatzea bete ditzala lizitazioa arautzen duten pleguetan xedatutakoa bete beharko duela, inolako erreserbarik gabe.

I

LAUGARRENA.- Erabaki horiek jakinaraztea interesdunari, Hirigintza Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

4. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

2023/674 DEKRETUA: 2023/3 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2023/674 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2023KFAK0002

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2023ko honako faktura-zerrenda hau:

3. zenbaki duena, 145.446,63 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau



EBAZTEN DU:

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

3. zenbaki duena, 145.446,63 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2023/675 DEKRETUA: 2023/4 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2023/675 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2023KFAK0002

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2023ko honako faktura-zerrenda hau:

4. zenbaki duena, 260.626,29 eurokoa.



Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

4. zenbaki duena, 260.626,29 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2023/736 DEKRETUA: 2023/5 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2023/736 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

2023KFAK0002

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.



TOLOSAKO
UDALA

2023IGBA0007

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2023ko honako faktura-zerrenda hau:

5. zenbaki duena, 604.873,62 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- *Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

5. zenbaki duena, 604.873,62 eurokoa.

BIGARRENA.- *Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.*

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

*Nire aurrean,
idazkaria*

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 11:50ean.

ALKATEA

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023IGBA0008-2023-04-04 Gobernu batzarra akta/2023-04-04 Gobernu